

[www.lupak.org](http://www.lupak.org)

Koadernoia

11

# LGTBIO+ kolektiboak duen jarduera politikoaren pertzepzioa

Euskadi

2025eko  
azaroa

LU  AK

Kooperatives



www.fubsk.org

# berlzebzioa politikoraren jarbuerla duen kojektiboa + LGTBIO+

Euskadi



2025eko  
929109

LUPAK jarduera politikoa ikertzeko behatokia da. Politikariek beren jarduerari buruz zer iritzi duten interesatzen zaigu, baita herritarrek politikaren gainean egiten dituzten galderei buruz zer iritzi duten ere.

Ale hau LUPAKen ikerketetatik abiatuta egindako koaderno-  
serie baten parte da.

# Koadernoaren 6 puntuak

**#1.**  
Sarrera **06**

---

**#2.**  
Datuen jatorria **07**

---

**#3.**  
Testuinguru orokorra **08**

---

**#4.**  
Kolektibo elkarrizketatuaren  
4 — profila **10**

---

**#5.**  
Kolektiboak pentsatzen duena **12**

---

**#6.**  
Hiru ideia nagusi **19**

---



# # 1. Sarrera

Herritarrek duten jarduera politikoari buruzko pertzepzioa fenomeno konplexua da, eta gizarteko zenbait kolektiboren esperientziak, eskariak eta interesak ezagutzeko aukera ematen du, kasu honetan, LGTBIQ+ kolektiboarenak. Azken urteotan, LGTBIQ+ pertsonak gero eta ikusgarritasun eta parte hartze handiagoak izan dituzte espazio politiko eta instituzionaletan, eta ahalegin handiagoa egin dute ere agenda publikoan eragina izateko, sexu eta genero dibertsitatearen ikuspuntutik.

Parte hartze horrek, aitortpena eta ordezkaritza bilatzeaz gain, dinamika politiko tradizionalak eraldatu nahi ditu, politika inklusiboak eta giza eskubideen errespetua sustatuz. Aldiz, badira zenbait erronka ere: diskriminazioa, erakundeekiko mesfidantza eta araudi esparru sendo eta eraginkorragoen beharra, besteak beste.

6          LGTBIQ+ kolektiboa eragile politiko garrantzitsua da gaur egun, eta beren ahots eta esperientziek aukera ematen digute herritarrek eta partaidetza demokratikoa modu zabalago batean ulertzeko. Kolektiboaren inplikazioarekin batera, ikusgarri egiten dira aktibismo modu berriak, eta zabaldu egiten dira berdintasunari, dibertsitateari eta justizia sozialari buruzko eztabaidak, beste aldarrikapen garaikide batzuekin lotuta daudenak, hala nola feminismoa, jasangarritasuna edo eskubide digitalak.

Testuinguru horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko LGTBIQ+ pertsonen parte hartze politikoa funtsezko euskarria da gizarte pluralago bat eraikitzen lagunduko duen demokrazia inklusiboa lortzeko. Horregatik aurkeztu ditugu koaderno honetan LUPAK behatokiak egin duen LGTBIQ+ kolektiboaren euskal jarduera politikoari buruzko pertzepzioaren inguruko ikerketaren datuak.

## # 2. Datuen jatorria

LUPAKek egindako ikerketaren esparruan, jarduera politikoaren inguruan duten pertzepzioari buruz galdetu diegu Euskal Autonomia Erkidegoko 217 pertsonari.

### Parte hartzaileak

Euskadi

**217**

---

### Generoaren araberako banaketa

Euskadi

**95**

zis gizon

**46**

zis emakume

**31**

pertsona ez bitar /  
genero desadostasun

**15**

trans pertsona

**9**

intersexual

**21**

beste batzuk

7

---

### Orientazioaren araberarako banaketa

Euskadi

**63**

gay

**37**

bisexual

**22**

lesbiana

**19**

pansexual

**17**

asexual

**17**

queer

**18**

heterosexual

**24**

beste batzuk

---

Lurralde-esparrua

**Euskadi**

---

# 3.

— Testuīnguru  
ogokorra



### 3. Testuinguru orokorra

**Zein da LGTBQ+ pertsonen parte hartze politikoaren eta eskubideen pertzepzioa?**



LGBTQ+ pertsonen eskubide berdintasunaren babesa Europan<sup>1</sup> eta Latinoamerikan<sup>2</sup>

Europa  
(28 herrialde)

**% 76**

Latinoamerika  
(18 herrialde)

**% 43**

Kolektiboak politikari egiten dion ekarpen bereziaren pertzepzioa<sup>3</sup>

**% 26**k uste du LGBTQ+ pertsonak ikuspegi berezia eskaintzen dutela erabaki espazioetan.

Eskubideen babes globala eta diskriminazioaren aurkako legeak<sup>4</sup>

Munduko biztanleriaren **% 51** enpleguaren, hezkuntzaren, etxebizitzaren eta zerbitzuen esparruetan LGBTQ+ pertsonen diskriminazioa debekatzen duten legeen alde dago.

#### **Iturriak:**

<sup>1</sup> Bertelsmann Stiftung. (2019). Support for LGBTI rights grows in Europe. Bertelsmann Stiftung. <https://eupinions.eu/de/blog/support-for-lgbti-rights-grows-in-europe>

<sup>2</sup> Lupu, N., Rodríguez, M., & Wilson, C. J. (Eds.). (2023). The Pulse of Democracy: AmericasBarometer 2023 survey methodology and results (LAPOP Lab Report). Vanderbilt University & LAPOP Lab.

<sup>3</sup> Ipsos. (2021). LGBT+ Pride 2021 Global Survey – Key Findings. Ipsos.

<sup>4</sup> Ipsos. (2025). LGBT+ Pride Report 2025: Majority are for anti-discrimination protections, but support slips for several LGBT+ issues. Ipsos.

# 4. Kolektibo elkarrizketatuaren profila<sup>5</sup>



**Iturria:**

<sup>5</sup> LUPAK. (2025). LGTBIQ+ kolektiboak duen Euskal Autonomia Erkidegoko jarduera politikoari buruzko pertzepzioaren inguruko ikerketa

#### 4. Kolektibo elkarrizketatuaren profila

### Zein ikasketa maila dute?

Goi mailako ikasketak

**% 51**

Graduondoko ikasketak

**% 20**



### Zertan dihardute?

Besteren  
konturako lana

**% 71**

Autonomoa

**% 16**

Ikasleak

**% 6**

### Zein da haien diru sarrera maila?

< 20.000 €

**% 29**

30.000-40.000 €

**% 28**

> 50.000 €

**% 14**

# 5. Kolektiboak pentsatzen duena<sup>5</sup>

**Iturria:**

<sup>5</sup> LUPAK. (2025). LGTBIQ+ kolektiboak duen Euskal Autonomia Erkidegoko jarduera politikoari buruzko pertzepzioaren inguruko ikerketa

**Hauteskundeetako parte hartzea eta portaera**

**Nola parte hartzen dute politikan?**

**% 86k** ohiko moduan baliatzen du boto eskubidea

**% 56** alderdi politiko batengandik hurbil sentitzen da

**% 14** erabat ordezkaturata sentitzen da gaur egungo alderdi politiko batekin

**% 35**ek bere botoa aldatu du edo botoa emateari utzi dio LGTBIQ+ eskubideekin lotutako arrazoiak direla eta

## 5. Kolektiboak pentsatzen duena

**Pertzepzio instituzionala eta zerbitzu publikoak**



**Zein da kolektiboaren erakunde publikoekiko konfiantza maila beren eskubideak defendatzeko?**

**% 56**k dio erakundeekiko konfiantza gutxi duela

**Nola baloratzen dituzte udal zerbitzuak?**

14 **% 49**k eskasegitzat jotzen ditu udal zerbitzuak

**Ezagutzen al dituzte laguntza baliabideak, hala nola 028 telefonoa edo tokiko elkarteak?**

Inkestaturen **% 50**ek ezagutzen ditu laguntza baliabideak eta tokiko elkarteak

## 5. Kolektiboak pentsatzen duena


### Diskriminazioa eta indarkeria



#### Kolektiboak diskriminazio edo indarkeriarik sufritu du bere **LGTBIQ+** identitatea edo orientazioa dela eta?

Kolektiboaren **% 43**k dio noizbait edo behin baino gehiagotan diskriminazioa edo indarkeria sufritu duela azken 12 hilabeteetan

#### Non gertatu da diskriminazioa edo indarkeria?



#### Gertatutakoa salatu zen?

Kolektiboaren **% 90**ek ez zuen diskriminazioa edo indarkeria salatu

## 5. Kolektiboak pentsatzen duena

### **Gorroto diskurtsoak eta babesteko legeak**

#### **Gorroto diskurtsoak areagotu direla nabaritu da?**

Kolektiboaren **% 79**k nabaritu du LGTBIQ+ kolektiboaren aurkako gorroto diskurtsoa nabarmen hazi dela

#### **Kolektiboak beharrezkotzat jotzen du LGTBIQ+ kolektiboari zuzendutako gorroto diskurtsoen aurkako Estatu Itun bat?**

16

Kolektiboaren **% 98**k beharrezkotzat jotzen du Estatu Ituna

#### **Eta erkidego mailako LGTBIQ+ Lege bat Euskal Autonomia Erkidegoan?**


Kolektiboaren **% 89**k beharrezkotzat jotzen du LGTBIQ+ eskubideak babesteko lege autonomiko bat

## 5. Kolektiboak pentsatzen duena

### Lehentasun politikoak eta beharrezko neurriak



### Zein neurri jotzen dituzte lehentasunezkoztat Euskal Autonomia Erkidegoan kolektiboaren egoera hobetzeko?





## # 6. Hiru ideia nagusi

1

LGTBIQ+ kolektiboak politikarekiko interesa dauka, baina ez da erabat ordezkaturik sentitzen alderdi politikoaren aldetik.

2

LGTBIQ+ kolektiboaren erdiak dio konfiantza gutxi duela erakunde publikoetan.

3

LGTBIQ+ pertsonetikiko gorroto diskurtsoa gorantz doan fenomeno dela uste da.









---

2025eko  
azaroa

---

**LGTBIQ+ kolektiboak duen  
jarduera politikoaren pertzepzioa**

**Euskadi**

---